

2015



Arkeologi Ikerketa Investigación Arqueológica

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak*
sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno
Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

ARKEOIKUSKA EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZENTROAK

urtero burutzen duen argitalpena da. Bertan E.A.E.an urtean zehar egiten diren arkeologi ikerketa guztiak agertzen dira. Euskal Kultura Ondarearen Zentroak ez du ikertzaileek egindako artikuluen edukiaren erantzunkizunik hartzen.

ARKEOIKUSKA es una publicación anual del **CENTRO DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO**.

En ella se recogen todas las actividades arqueológicas realizadas en la C.A.V. anualmente.

El Centro de Patrimonio Cultural Vasco no se hace responsable del contenido de los artículos elaborados por los diversos investigadores.

* * * * *

Argitaraldia: 1.a, 2016ko azaroa

Ale Kopurua: 1.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinaketa: Dona Gil Abad

Azalaleko irudiak: Murugaingo herrigune gotortua. Lubaki bakuna eta lurrezko pezoia, mendiaren ekialdeko mazelan eta 2015. urteko ekinaldian aurkitutako material arkeologikoak: kartutxoak, oinetakoentzako zatiak, domina, gerrikoen belarriak, janari latak, eta abar.

Testuak, argazkiak eta irudiak: aipatutako lanen eta aztarnategien zuzendariak

Itzulpena: LUMA, Hizkuntza Zerbitzuak

Fotokonposaketa: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa: mcccgraphics, s.coop.

I.S.S.N.: 0213-8921
L.G.: VI 486-1983

Edición: 1.ª, noviembre 2016

Tirada: 1.500

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura
www.euskadi.net

Edita:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Coordinación: Dona Gil Abad

Imágenes de portada: Poblado fortificado de Murugain. Trinchera simple y parapeto de tierra, en la ladera este del monte y materiales aparecidos en el transcurso de la campaña de 2015: cartuchos, fragmentos de calzado, medalla, hebillas de cinturón, latas de alimentos etc.

Textos, fotografías e ilustraciones: directores de las excavaciones y de los trabajos referidos

Traducción: LUMA, Hizkuntza Zerbitzuak

Fotocomposición: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Impresión: mcccgraphics, s.coop.

I.S.S.N.: 0213-8921
D.L.: VI 486-1983

B. BIZKAIA

Honenbestez, aztertutako orubeen kokalekuak (Areatzako Erdi Aroko hirigintzari emandako testuetan aipatu ere ez da egiten alde hau, edo geroagoko hiri zabaltzeko prozesu goiztiarrekina lotzen dute), aipatu bi kaleen arteko espazio osoan burdina egiteko edo eraldatzeko ageriko aztarnak eta egun kontserbatzen den toponimiak (Arragoeta du izena orubeetatik abiatzen den eta San Bartolome tenplurantz egiten duen kantoia) Areatzako hiribilduaren barnean ustez bideratuko zituzten ekoizpen izaerako jardueren aurrean jartzen gaituzte.

Por lo tanto la ubicación de los solares estudiados (en una zona apenas citada en los textos versados sobre el urbanismo medieval de Areatza o relacionada más bien con tempranos procesos de expansión urbana posterior), las indudables evidencias de producción o transformación de hierro en todo este espacio comprendido entre ambas calles, e incluso la toponimia conservada en la actualidad (Arragoeta es el nombre del cantón que partiendo de los solares se dirige al templo de San Bartolomé); no hacen más que ahondar en la posibilidad de situarnos dentro de actividades de producción en el interior de la villa de Areatza.

J.Á. Fernández Carvajal

B.3.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

B.3.2.1. Otsobasoko trikuharria

II. Kanpaina
Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Ingurumen Saila. Bizkaiko Foru Aldundia

B.3.2.1. Dolmen de Otsobaso

II Campaña
Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Dpto. de Medio Ambiente. Diputación Foral de Bizkaia

The 2015 season at the Otsobaso dolmen revealed a monument with an earth core and stone housing, measuring 18 metres in diameter N-S and 16.8 metres E-W, and 1.5 m in height. The funerary chamber, which is located inside the earth core, has a trapezoid floor plan measuring 2.4 m in length by 1.8 m in width. It is oriented towards the east and is essentially made up of 5 orthostates.

Ordoki zabal batean dago Otsobasoko trikuharria, Gorbeia Natur Parkearen ipar-ekialdeko sektorean, Mendiganako trikuharriaren ipar-mendebaldera 680 metrora. 2012. urtean aurkitu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Basozaintza Zerbitzuko kide P.L. Padillak. 2014. urtean zundaketa estratigrafikoak egiteko lehenengo kanpaina eraman genuen burura tumuluaren egituraren izaera arkeologikoa eta megalitikoak berresteko xedearekin, eta izaera hori berretsita geratu zen burura eramandako zundaketarekin. Hala eta guztiz ere, induskatutako azalera txikia izanenez, ezin izan genuen hileta barrutiaren tipologia zehaztu. Horrenbestez, handiagoa eta sakonagoa izango zen bigarren indusketa kanpaina bat programatu genuen 2015. urterako.


Hona hemen Otsobasoko monumentuan bideratutako II. indusketa kanpaina honen helburu nagusiak: 1) hileta barrutia aurkitzea eta dokumentatzea; 2) monumentuaren egitura arkitektonikoa ezaugarritzea; eta 3) trikuharria eraikitzekeko sekuentzia eta haren hileta erabilera zehaztea. Horretarako 14 m²-ko azalera jardun genuen, hileta ganbera eta tumuluaren egitura barne hartuta. Hona hemen erregistratutako ebaki estratigrafikoa:

- Ganberari leku egiten dion espazioan 9 m²-ko azalera induskatu genuen 8I, 8J, 8K, 9I, 9J, 9K, 10I, 10J eta 10K laukietan. Lurrezko oinera iritsi arte sakondu genuen, hileta ganbera garbi eta agerian utzita.

El dolmen de Otsobaso se sitúa en un amplio rellano dentro del sector nororiental del Parque Natural de Gorbeia, a 680 m al NW del dolmen de Mendigana. Fue descubierto en el año 2012 por P.L. Padilla, miembro del Servicio de Guardería Forestal de la Diputación Foral de Bizkaia. En 2014, se programó una primera campaña de sondeos estratigráficos con el objeto de confirmar el carácter arqueológico y megalítico de la estructura tumular, que quedó ratificado con el sondeo realizado. Sin embargo, la tipología del recinto sepulcral no pudo ser determinada debido a la reducida superficie excavada. Consecuentemente, para 2015 se programó una segunda campaña de excavación arqueológica de mayor extensión y profundidad.

Los objetivos esenciales de la IIª campaña de excavación en el monumento de Otsobaso fueron: 1) descubrir y documentar el recinto sepulcral; 2) caracterizar la estructura arquitectónica del monumento; y 3) determinar la secuencia de construcción y uso funerario del dolmen. Para ello, se ha trabajado en una superficie de 14 m², abarcando la cámara sepulcral y la estructura tumular, donde se ha obtenido un corte estratigráfico frontal:

- En el emplazamiento de la cámara se ha excavado una superficie de 9 m², correspondiente a los cuadros 8I, 8J, 8K, 9I, 9J, 9K, 10I, 10J y 10K. Se ha profundizado hasta alcanzar la parte inferior del núcleo terroso, despejando y descubriendo la cámara sepulcral.



Otsobasoko monumentuaren topografia, hileta ganberaren berrosatze fotogrametrikorekin (E. Alonso, 3DTS).

Topografía del monumento de Otsobaso con la restitución fotogramétrica de la cámara funeraria (E. Alonso, 3DTS).

– 5 m²-ko lubaki bat hartzen zuen fronteko ebaki estratigrafikoak, 9D, 9E, 9F, 9G eta 9H laukiak barne. Espazio honetan bestelako emaitzak eskaini zituen indusketak: 9G eta 9H laukien sabaian bere horretan utzi genuen harrizko geruza oso kontserbazio egoera onean zegoelako; 9F laukia harrizko substraturaino iritsi arte induskatu genuen; eta 9D eta 9E laukietan lurrezko nukleoaren sabairaino iritsi arte.

– El corte estratigráfico frontal ha ocupado una trinchera de 5 m², incluyendo los cuadros 9D, 9E, 9F, 9G y 9H. Aquí, la excavación ha tenido una desigual incidencia: en los cuadros 9G y 9H se ha dejado a techo la coraza pétreo, debido al buen estado de conservación que presenta; el cuadro 9F se ha excavado hasta alcanzar el substrato litológico; y en los cuadros 9D y 9E se ha llegado hasta el techo del núcleo terroso.

Induskatutako laukiek eraturiko sarearen barruan 2 zundaketa estratigrafiko egin genituen 3. koadrante-ko 9F eta 8J laukietan. 8J-3 zundaketak hileta ganberari leku egiten dion eraikinaren erdialdeko lurrezko nukleoaren lodiera zehaztea zuen helburu. Gainera, 3. ortostatoaren kokaleku estratigrafikoa dokumentatzeko aukera eskainiko zigun. Bestalde, tumuluaren egituraren profil oso bat lortzeko xedearekin eraman genuen burura 9F laukia induskatzeko lana.

Dentro de la cuadrícula de excavación, se han realizado 2 sondeos estratigráficos, en los cuadros 9F y 8J-cuadrante 3. El sondeo 8J-3 tuvo por objeto determinar la potencia del núcleo terroso en la parte central de la construcción, donde se inserta la cámara funeraria. Además, permitía documentar la posición estratigráfica del ortostato 3. Por su parte, el sondeo 9F se abrió con la finalidad de obtener un perfil completo de la estructura tumular.

Esku hartze arkeologiko hori 2015eko uztailaren 3tik abuztuaren 10era arte eraman genuen burura inolako etenik gabe. 2015eko azaroan eta abenduan, berriz, sedimentuak igerian edukita bahetzeko prozesuak eta laborategiko lanak (material arkeologikoa garbitzeko, zigilatze eta zerrendatzeko lanak) egin genituen. Indusketa lanen estrategia G. Laplace (1971) sistematikoki azaldutako kartesiar koordinatuen metodoari jarraitu zitzaion. 5 zentimetro lodi diren taila erditan altxatu genuen deposituko masa, eta sedimentu guztiak bahetu genituen 2 milimetroko argia duten metalezko baheetan. Igerian edukita prozesatu genituen altxatutako sedimentu batzuk, indusketa prozesuan zehar berreskuratzen zailak diren landarezko makro-hondakin ikatz bihurtuak eta beste bali-

La intervención arqueológica se ha desarrollado de forma continua entre los días 3 de julio y 10 de agosto de 2015. Las tareas de laboratorio (limpieza, siglado e inventariado del material arqueológico) y el procesado de sedimentos por flotación se han efectuado durante los meses de noviembre y diciembre de 2015. La estrategia de excavación ha seguido el método de coordenadas cartesianas, expuesto sistemáticamente por G. Laplace (1971). El levantamiento de la masa del depósito se ejecuta en semitallas de 5 centímetros de espesor y el sedimento se criba en su totalidad con cedazo metálico de 2 milímetros de luz. Una parte de los sedimentos excavados se ha procesado por flotación con el objeto de recuperar macrorestos vegetales carbonizados y otros posibles com-

zko osagai batzuk berreskuratzeko xedean. Monumentua era berau osatzen duten zatiak Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera aztertu genituen, frakzio txiki, ertain eta handiaren ezaugarriak zehaztu genituen, baita matrizearen kolorea, sedimentuaren trinkotasun maila, nahasketen presentzia, egiturazko osagaiak eta eduki antropikoa ere. Hala behar izan zuenean, Estratigrafia Analitikoaren Zirkuluak diseinatutako metodoari jarraiki aztertu genituen sedimentuzko osagaiak.

2015. urteko kanpaina amaituta, esan dezagun Otsobasoko trikuharria lurrezko nukleoa eta harrizko babesgarria duen monumentua dela, iparraldetik hegoaldera 18 metroko diametroa duela eta ekialdetik mendebaldera 16,80 metrokoa, eta 1,50 metro garai dela. Lurrezko nukleoan txertatutako hileta ganberak trapezoide itxurako oinplanoa du, 2,40 m luze da eta 1,80 m zabal, ekialderantz kokatuta dago, eta funtsean 5 ortostatok eratuta dago. Hona hemen material arkeologikoen zerrenda: suharran landutako 14 aztarna, hareharrizko 2 harri-ijeki, erabileraren arrastoak ageri dituen lutitazko harkosko bat, erabileraren arrastoak ageri dituen okre 1 eta 140 lagin arkeobotaniko (ikatz bihurtutako egur zatiak). Harrizko elementu sorta urria da oso, eta ez da batere esanguratsua kronologiaren eta kulturaren ikuspegitik. Elementu horiek monumentuaren testuinguru osoan banatuta ageri dira, tumuluaren azpiko zoruan izan ezik, nahiz eta hor oso azalera txikian jardun genuen. Oraingoz azpimarragarria da trikuharriaren hileta erabilerarekin (testuinguruaren edo tipologiaren arabera) lotu litekeen materialik katalogatu ez izana.

ponentes de complicada recuperación manual durante el proceso de excavación. El monumento y sus partes se han analizado desde los principios de la Estratigrafía Analítica, definiendo los caracteres de la fracción fina, media y gruesa, la coloración de la matriz, el grado de compacidad del sedimento, la presencia de alteraciones, los componentes estructurales y el contenido antrópico. En su caso, el tratamiento de los componentes sedimentarios se efectúa de acuerdo al método diseñado por parte del Círculo de Estratigrafía Analítica.

Tras la campaña de 2015, el dolmen de Otsobaso se califica como monumento de núcleo terroso y coraza pétreo, mostrando unas dimensiones de 18 metros de diámetro N-S por 16,80 metros E-W, y 1,50 m de altura. La cámara funeraria, inserta dentro del núcleo terroso, muestra una planta trapezoidal, de 2,40 m de longitud por 1,80 m de anchura, orientada al este y conformada esencialmente por 5 ortostatos. El inventario de material arqueológico se compone de 14 evidencias líticas en sílex, 2 cantos-plaquetas de arenisca, 1 canto de lutita con huellas de uso, 1 ocre con huellas de uso y 140 muestras arqueobotánicas (fragmentos de madera carbonizada). La serie lítica es exigua y muy poco significativa a nivel crono-cultural. Se reparte por la práctica totalidad de los contextos del monumento, a excepción del suelo infratumular, en el que se ha intervenido en una superficie mínima. Es reseñable que, por el momento, no se han catalogado materiales que se puedan asociar (por contexto o tipología) al uso funerario del dolmen.

J.C. López Quintana; A. Guenaga Lizasu

B.4. ARTZENTALES

B.4.1. **Traslaviñako dorrea**

Zuzendaritza: María José Sagarduy Barrena
Finantzazioa: Iratxe Llona Ortiz

B.4.1. **Torre de Traslaviña**

Dirección: María José Sagarduy Barrena
Financiación: Iratxe Llona Ortiz

The results of the archaeological monitoring were negative due to the fact that the subsoil was hardly affected at all.

Traslaviñako Dorrearen behe oinaren alde batean, ekialdean, komun bat instalatu behar zuen saltoki bat egin behar zuten. Saltoki horren barruko komunaren kokaleku berrian jarri beharreko ur beltzetarako hodi bati leku egiteko erreten txiki bat (3.80 x 0.20 x 0.20 m) irekitzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa bideratu genuen.

Aipatu lan txiki horietan ez zen dorretxearen zorupeko eraikuntza egitura bakar bat ere kaltetu.

En una parte de la planta baja de la zona este de la Torre de Traslaviña, se pretende colocar un local comercial que necesita instalar un servicio público. La intervención consistió en el control arqueológico durante la realización de una pequeña zanja (3.80 x 0.20 x 0.20 m.) para la colocación de una tubería de fecales en la nueva ubicación de esa instalación dentro del local comercial.

En la actuación, de muy escasa envergadura, no se ha visto afectada ninguna estructura constructiva del subsuelo de la casa-torre.

M^aJ. Sagarduy Barrena